# ARTE ESZENIKOEN EGITARAUA
# FAMILIAKO KIDE GUZTIONTZAT

URRIA - ABENDUA 2022 OCTUBRE - DICIEMBRE

# PROGRAMA DE ARTES ESCÉNICAS
# PARA PÚBLICO FAMILIAR



*Antolatzailea:*

Barakaldo
CIUDAD·HIRIA

*Dirulaguntza:*

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**EROSI SARRERAK ONLINE**
COMPRA ENTRADAS ONLINE

***Berriz ere izango ditugu familientzako Arte Eszenikoak Barakaldoko zentro zibikoetan!***

Familientzako Arte Eszenikoen Egitarauaren beste edizio bat abiaraziko du Barakaldoko Udaleko Hurbileko Kultur ekipamendu Sareak.

Kalitatezko familia-kultura bat proposatzeko betiko asmo beraz heldu da ekimena. Neska-mutilak arte eszenikoen mundu liluragarrian murgiltzen hasteko esperientzia bat eskaintzen du, antzerkiaren formatu anitz ikusten, sentitzen eta haiekin hunkitzen, aldi berean, kultur azturak sortuz, kontsumoarekin zerikusia duen aisiaren osagarri. Horrek beste aukera bat ematen digu euskara aisiaren arloan bizitzeaz gainera.

Denboraldi berriak eskaintzen duen programazioak diziplina desberdinetako ikuskizunak ditu: aktore-antzerkia, txotxongiloak eta objektuak, multimedia antzerkia eta zirku-antzerkia.

Urria-abendua 2022 hiruhilekoan bost ikuskizun izango dira, barakaldar haurrei -4 eta 11 urte bitartekoei- eta haien senideei zuzenduak. Gainera, ume txikientzako (2-4 urte) bi proposamen ere jasoko ditu.

Programazioa urriaren 22an, larunbata, hasi eta abenduaren 3an, larunbata, amaituko da, eta larunbatetan taularatuko da, 18: 00etan (Haur txikien emanaldiek bi saio izango dituzte: 17:00 eta 18:30). Larunbat txandakatuak, Clara Campoamor eta Gurutzetako zentro zibikoetan.

Espero dugu proposamen hau, berriro ere, baliogarria izatea hunkitzeko, dibertitzeko eta handien eta txikien irudimena hauspotzeko.

TICKET **SARRERAK EROSI**

Online ikuskizun guztietarako sarrera-salmenta urriaren 17tik aurrera (astelehena), 9:00etan. SARRERAK

*Lan bakoitza zein adinetarako den aintzat hartzea komeni da. Konpainien jarraibide pedagogikoei jarraituz, 3 urtetik beherakoak ezin izango dira aretora sartu (umetxoei bereziki zuzendutako ikuskizunetan izan ezik)

***Vuelven las Artes Escénicas para público familiar a los centros cívicos de Barakaldo!***

Desde la Red de equipamientos Culturales del Ayuntamiento de Barakaldo, en octubre de 2022, tras dos años de impasse, se pone en marcha una nueva edición del Programa de Artes Escénicas para Público Familiar.

Esta iniciativa vuelve con la misma voluntad de siempre proponiendo una cultura familiar de calidad. Ofrece una experiencia para que niñas y niños se inicien en el fascinante mundo de las Artes Escénicas, disfrutando y aprendiendo a ver, sentir y emocionarse con el teatro en sus múltiples formatos. A la vez, les ayuda a generar hábitos culturales, complementarios a un ocio más vinculado al consumo y supone una oportunidad más para vivir el euskera en el ámbito del tiempo libre.

La nueva temporada ofrece una programación con espectáculos de diferentes disciplinas: teatro de actores, títeres y objetos, teatro multimedia, danza y teatro-clown.

Durante el trimestre octubre-diciembre 2022 contará con cinco espectáculos dirigidos a las niñas y niños barakaldeses -en la franja de edad de 4 a 11 años- y sus familias. Además, contemplará también dos propuestas para la primera infancia -2 a 4 años-.

La programación, que se inicia el sábado 22 de octubre y finaliza el sábado 3 de diciembre, se pondrá en escena los sábados a las 18:00h (Las funciones de primera infancia tendrán dos sesiones 17:00 y 18:30). Sábados alternos en el Centro Cívico Clara Campoamor y Centro Cívico de Cruces.

Esperamos que, una vez más, esta propuesta emocione, divierta y haga volar la imaginación de grandes y pequeños.

**COMPRAR ENTRADAS**

**Venta de entradas online de todos los espectáculos,**
**a partir del lunes 17 de octubre a las 9:00h**

*Se recomienda respetar las edades a las que cada obra va dirigida. Siguiendo las indicaciones pedagógicas de las compañías, las y los menores de 3 años no podrán entrar en la sala
(Salvo en los espectáculos especialmente dirigidos para primera infancia)



**URRIAK 22** OCTUBRE

# La cigarra y la hormiga

## XIP-XAP

**Txotxongiloak eta aktoreak**
Títeres y actores

**Clara Campoamor Zentro Zibikoa**
Centro Cívico Clara Campoamor

**18:00 | 50´**

**Gaztelaniaz** | Castellano

**Familiak, 4 urtetik aurrera**
Público familiar, a partir de 4 años

**Oso langilea den inurriaren eta horren langilea ez den txitxarraren istorioa da hau. Hori ere, lehendik bagenekien, ezta? Agian, ez dakizuena da horrelakoak zein urtarotan gertatzen diren. Ala, bai?**

**Adiskidetasunaz diharduen intsektuen ipuin bat da Txitxarra eta inurria, bai eta bizitza ikusteko moduez eta arazoei aurre egiteko moldeez ere. Ontasunaz eta gaiztakeriaz ez ezik berekoitasunaz eta eskuzalbatasunaz ere mintzo zaigu.**

**Urtaroetan barrena bidaiatuko gara, zuhaitzetako hostoen kolorea aldatuko da, elurra arituko da negua heltzean, eta pinpilinpauxak ekarriko dizkigu udaberriak.**

**Kantu-kantari, ipuinak denok espero dugun amaierara eramango gaitu. Agian, ez?**

Esta es la historia de una hormiga muy trabajadora y de una cigarra que no lo es tanto. Pero esto ya lo sabíamos ¿no? Lo que quizás no sabéis es en que estaciones pasan todas estas cosas ¿o sí?

La cigarra y la hormiga es un cuento de insectos, que nos habla de la amistad, de las diferentes maneras de ver la vida y de cómo afrontarlas, nos habla de la bondad y de la maldad, del egoísmo y de la generosidad.

Viajaremos por las estaciones del año, las hojas de los árboles cambiarán de color y caerán, nevará cuando llegue el invierno y volverá la primavera con sus mariposas.

Cantando canciones el cuento nos transportara a un final que todos esperamos ¿O quizá no?

TEASER

SARRERAK EROSI
COMPRAR ENTRADAS



## **URRIAK 29** OCTUBRE

# Lua

## VOILÁ PRODUCCIONES

**Antzerkia instalazio artistikoarekin**
Teatro con instalación artística

**Gurutzetako Zentro Zibikoa**
Centro Cívico de Cruces

**18:00 | 50´**

**Gaztelaniaz** | Castellano

**Familiak, 5 urtetik aurrera**
Público familiar, a partir de 5 años

**"Itzalik gabe"koen hirian, denek diote iluntasunari beldur. Horregatik dauzkate beti argiak piztuta. Halako batean, ordea, Luak, lanpara bitxi batek, argia itzalitakoan zer gertatzen den jakitea erabakitzen du. Eta horrela ezagutuko du Itzala, izaki zakar bat, azkenean bere munduak ezkutatzen duen edertasuna erakutsiko diona.**

**Ezezagunari diogun beldurraz mintzo den familia-ikuskizuna da Lua. Argiei eta itzalei buruzko istorioa bat, argia bera protagonista duena. Poema dramatizatua, arte-instalazio delikatua, baina baita antzerki-pieza sofistikatu bat ere.**

En la ciudad de los "Sin sombra" todos tienen miedo a la oscuridad. Por eso siempre tienen sus luces encendidas. Hasta que un día, Lua, una curiosa lámpara, decide ver qué pasaría si apagara su luz. Así es como conoce a Sombra, un ser esquivo que acabará mostrándole la belleza que se esconde en su mundo.

Lua es un espectáculo familiar que habla sobre el miedo a lo desconocido. Una historia sobre las luces y las sombras, donde la propia luz es una protagonista más. Un poema dramatizado, una delicada instalación artística, pero también una sofisticada pieza de teatro.

TEASER

SARRERAK EROSI
COMPRAR ENTRADAS



# AZAROAK 5 NOVIEMBRE

## 20.000 legoa itsaspeko zaborretan

### TXALO

**Aktore antzerkia** | Teatro de actores

**Clara Campoamor Zentro Zibikoa**
Centro Cívico Clara Campoamor

**18:00 | 60´**

**Euskaraz** | Euskera

**Familiak, 5 urtetik aurrera**
Público familiar, a partir de 5 años

**Itsas munstro batek jende guztia jarri du dantzan; balea bat baino handiagoa da, eta kolorea aldatzen du abiadura handian igeri egiten duen bitartean. Izua zabaldu du marinel guztien artean. Itsaso-zale eta surflari amorratua den Anorak gazteak zer-nolako piztia den ikertuko du. Itsas munstroaren ordez, baina, Nemo kapitainak gidatu eta gizadia arriskuan jarriko duen asmo txarreko itsaspeko bat aurkituko du.**

**Bidaia luze batean murgilduko da Anorak, eta itsasoak gorderik dauzkan sekretuak ezagutuko ditu. Emozioak, beldurrak, txipiroi erraldoiak, pertsonaia liluragarriak eta fantasiak nahasiko dira bidaia ahaztezin honetan.**

**Zatoz, eta beste mundu bat ezagutuko duzu Nautilusen eskotilatik!**

**Julio Verneren eleberrian oinarritua.**

Un monstruo marino ha encendido todas las alarmas; más grande que una ballena, y cambiando de color mientras nada a gran velocidad, ha sembrado el terror entre los marineros. Surfista empedernido y aficionado al mar, Anorak va a investigar qué clase de bestia es. Pero en vez de un monstruo marino, lo que se va a encontrar es un submarino con malas intenciones que pondrá en peligro la humanidad, guiado por el capitán Nemo.

Anorak se adentrará en un largo viaje en el que conocerá los secretos que esconde el mar. Las emociones, los miedos, los calamares gigantes, los personajes inolvidables y las fantasías se mezclarán en este viaje inolvidable que es 20.000 leguas de viaje submarino.

Ven y conocerás un nuevo mundo desde la escotilla del Nautilus!.

Basada en la novela de Julio Verne.

**SARRERAK EROSI**
**COMPRAR ENTRADAS**



## AZAROAK 12 NOVIEMBRE

# La luna en el jardín

## TEATRO SILFO

**Lehen haurtzarorako zentzumen-antzerkia**
Teatro sensorial para primera infancia

**Gurutzetako Zentro Zibikoa**
Centro Cívico de Cruces.

**2 saio: 17:00 / 18:30 | 30´**
Dos pases: 17:00 y 18:30 | 30´

**Gaztelaniaz** | Castellano

**Familiak, 2 eta 4 urte bitarteko adingabeekin.**
Público familiar, con menores de 2 a 4 años

**Lorategi bitxi bateko biztanle Sara eta Barbarak oskoletik ezin atera dabilen txita bati lagundu nahi diote. Zain daudela, naturaren magia lorategi osora hedatzen da, eta urtaro guztiak gertatzen dira, beren edertasun betean.**
**Udazkenak euria dakar; manten beroak bildu behar gaitu negu zuria heltzean, pinpilinpauxei segika ibiliko gara udaberri loretsuan, eta udan, pausatu, eta eguzkiaren printzek berotuko gaituzte.**
**Ikusleek eserlekutzat daukaten alfonbra-lorategia denbora-makina dibertigarri bihurtu da, eta azkenera arte ez dugu jakingo txitak bere gordelekua utziko ote duen.**
**FETEN 2019 Saria, Umetxoentzako ikuskizun onena**
***Bertaratutako guztiek erosi beharko dute sarrera. Gehienez, umetxo bakoitzeko gehienez bi heldu etortzea gomendatzen da.**

Sara y Bárbara , las habitantes de un peculiar jardín, quieren ayudar a un pollito que no puede salir de su cascarón...Durante la espera, la magia de la naturaleza invade el jardín y las estaciones se suceden en toda su hermosura.
Llega el otoño con sus lluvias, hay que abrigarse con mantas cuando llega el blanco invierno, perseguir mariposas en la primavera floreada y en verano pararse a recibir los rayos del sol...
La gran alfombra-jardín sobre la cual el público se sienta toma la forma de una divertida máquina del tiempo y sólo al final se sabrá si el pollito decide dejar su confortable escondite.
Premio FETEN 2019 Mejor espectáculo para primera infancia

TEASER

SARRERAK EROSI
COMPRAR ENTRADAS



## AZAROAK 19 NOVIEMBRE

# Italino Grand Hotel

## LA TAL

**Antzerkia eta clown**

Teatro y clown

**Clara Campoamor Zentro Zibikoa**
Centro Cívico Clara Campoamor

**18:00 | 50´**

**Euskaraz** | Euskera

**Familiak, 5 urtetik aurrera**
Público familiar, a partir de 5 años

**Nork garbitzen ditu hoteletako izara ugariak? Italino Gran Hoteleko azken sotoan dago ikuztegia. Han, pertsonaia bakarti batek garbitzen, lisatzen eta lurrintzen ditu izarak. Izara artean bizi da, eta han egiten du amets, bere bakardadea makinekin solasean ezkutatuz eta bere itzalarekin jolastuz. Makinen bozgorailuen bitartez lotzen zaio munduari, handik hoteleko beste bi langileren ahotsek ateratzen baitute axolagabekeriatik, eta horrela sumatzen du mundua eta bizitza.**

**Pailazo klasikotik abiatuta bilakatu du unibertso propio bat La Tal konpainiak, clownaren munduari buruzko berrikuspen sakon baten fruitu.**

¿Quién lava las miles de sábanas de los hoteles? En el último sótano del Italino Grand Hotel está la lavandería. Allí, un personaje solitario lava, plancha y perfuma las sábanas. Vive y sueña entre ellas y esconde su soledad conversando con las máquinas y jugando con su sombra. Su conexión con el mundo es a través de los altavoces de las máquinas, por donde dos voces, de otros trabajadores del hotel, lo salvan de la indiferencia, y le hacen intuir el mundo y la vida...

La cia. La Tal ha evolucionado del payaso clásico hasta un universo propio fruto de una profunda revisión sobre el mundo del clown.

TEASER

SARRERAK EROSI
COMPRAR ENTRADAS



## AZAROAK 26 NOVIEMBRE

# Chinchulina y el ruiseñor de la China

## LA CANICA

**Txotxongilo, objektu eta dantza antzerkia**
Teatro de títeres, objetos y danza

**Gurutzetako Zentro Zibikoa**
Centro Cívico de Cruces

**18:00 | 45´**

**Gaztelaniaz** | Castellano

**Familiak, 4 urtetik aurrera**
Público familiar, a partir de 4 años

**Txinako enperadorea munduko portzelanarik mehe eta hauskorrenez eraikitako palazio eder batean bizi zen, lorategi ederrez eta munduko lorerik fin eta lurruntsuenez inguraturik. Horrez gainera, Chinchulina izeneko alaba bat zeukan, oso alaia eta bizitzaz betea. Halako batean, tristurak hartu zuen Chinchulinaren bihotza. Ruiseñor Azul izeneko txori baten kantuak bakarrik itzularaz zezakeen bizipoza Chinchulinaren bihotzera.**
**Txinako enperadorea ez zen sekula bere palazio ederretik irten, baina, orduan, tradizioa alde batera utzi, eta txori bitxi horren bila joatea erabaki zuen. Bilaketa horretan ezagutuko ditu bere inperio zabaleko biztanle txiroen asmoak, ardurak eta ametsak. Ekialde urruneko txotxongiloak, txantxoak eta dantzak. Edertasunez, emozioz, exostismoz eta poesiaz jositako ikuskizuna.**

El emperador de la China vivía en un hermoso palacio hecho de la porcelana más fina y frágil del mundo, con bellos jardines y las flores más exquisitas y perfumadas del orbe. También tenía una hija muy alegre y llena de vida llamada Chinchulina.
Un día la tristeza se apoderó del corazón de Chinchulina. Solo el canto de un pájaro llamado Ruiseñor Azul podría devolver la alegría a su mustio corazón.
El emperador de la China, que nunca había salido de su hermoso palacio, decidió romper con la tradición y salir en busca de ese extraño pájaro. En su búsqueda irá descubriendo los afanes, los desvelos y los sueños de los humildes pobladores de su vasto imperio. Títeres, máscaras y danzas del lejano oriente. Un espectáculo lleno de belleza, emoción, exotismo y poesía.

TEASER

SARRERAK EROSI
COMPRAR ENTRADAS



# ABENDUAK 3 DICIEMBRE

## Kubik

## TEATRO PARAISO

**Lehen haurtzaroko objektuen antzerkia.** Teatro de objetos para Primera infancia

**Clara Campoamor Zentro Zibikoa**
Centro Cívico Clara Campoamor

**2 saio: 17:00 / 18:30 | 35´**
Dos pases: 17:00 y 18:30 | 35´

**Euskaraz** | Euskera

**Familiak, 2 eta 4 urte bitarteko adingabeekin.** Público familiar, con

**Antzerki-jolas bat da Kubik. Bi aktorek koloreak, formak eta bolumenak proiektatzen dituzte zuriaren gainean, unibertso sentsorial bat marrazteko. Biek batera, sortzearen eta irudiak (etxeak, trenak, basoa, itsasoa...) begiratzearen plazera deskubritzen dute, eta ikusle txikiak ere mundu horretan bidaiatzera, jolastera, deskubritzera, irudikatzera eta amets egitera ekartzen dituzte. Kubiken dena aldatzen da, dena eraldatzen da. Mundu batek beste mundu bat sortzen du. Entzuteko denbora amaitzen denean, aktoreek agertokia utzi, eta haurren espazioan sartzen dira, txiki eta handien arteko egoera elkarreragileak suertatuko dituen jolasari ekiteko. Belgikako Théâtre de la Guimbarde-rekin batera egindako ikuskizuna, Smail Sice Big Citizens egitasmoaren barruan. Europar Batasunaren egitasmoak urtebete eta 6 urtera bitarteko haurrei antzerkia hurbiltzea du helburu. *Bertaratutako guztiek erosi beharko dute sarrera. Umetxo bakoitzeko gehienez bi heldu etortzea gomendatzen da.**

Kubik es un juego teatral en el que dos actores proyectan colores, formas y volúmenes para dibujar un universo sensorial sobre el blanco. Juntos, descubren el placer de crear y mirar las imágenes (casas, trenes, un bosque, el mar...) mientras invitan a los pequeños espectadores a viajar, jugar, descubrir, imaginar y soñar. En Kubik todo cambia, todo se transforma. Un mundo da paso a otro mundo. Al finalizar el tiempo de escucha, los actores abandonan el escenario para entrar en el espacio de los niños y niñas e iniciar un juego en el que se suceden situaciones interactivas entre pequeños y grandes.
Espectáculo realizado en colaboración con Teatro de la Guimbarde de Bélgica dentro del proyecto Small Size Big Citizens, iniciativa de la Unión Europea que pretende acercar el teatro a niños de entre 1 y 6 años.

TEASER

SARRERAK EROSI
COMPRAR ENTRADAS

- **Online** ikuskizun guztietarako **sarrera-salmenta urriaren 17tik aurrera** (astelehena), 9:00etan
- Prezioa: Helduak: 3€ / Haurrak: 2€
- Lan bakoitza zein adinetarako den aintzat hartzea komeni da. Konpainien jarraibide pedagogikoei jarraituz, 3 urtetik beherakoak ezin izango dira aretora sartu (umetxoei bereziki zuzendutako ikuskizunetan izan ezik)

---

- Las entradas de todos los espectáculos se pondrán a la **venta online a partir del lunes 17 de octubre** a las 9:00h.
- Precio: Adultos 3€ / Infancia 2€
- Se recomienda respetar las edades a las que cada obra va dirigida. Siguiendo las indicaciones pedagógicas de las compañías, las y los menores de 3 años no podrán entrar en la sala (salvo en los espectáculos especialmente dirigidos a primera infancia).

**Programa honetako jarduerei buruzko informazioa jasotzeko,** →

**harpidetu zaitez newsletterrera**
**suscríbete a la newsletter**

← **Para recibir información de las actividades de este programa**

**EROSI SARRERAK ONLINE**

COMPRA ENTRADAS ONLINE

*Antolatzailea:*

Barakaldo
CIUDAD·HIRIA

*Dirulaguntza:*

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO